

UTSA

*Euskel sustrai
Erri onen mamia non dago?
Auxé duk nere ustea:
ez cronlech ez dolmenetan
ez arri koxkor zarretan...*

*Itxaso-bazter etxetan
ta mendi baserrietan,
oraindik bizirik bañan
Uts sakon illunpetan
estaltzera dijoakigun
izkuntza gureen...*

*Mendi-mendian otea,
botoi oriaz betea,
Jorge de Oteiza, i aiz
ola-gizonen semea.
Ire malluak ordea
—Irudimenezko mallo orrek—
ez tiriki-taukirik
Utsa moldatzeko joak
ezpaitute soñurik...
biotzarentzat baizik...*

KONTXESI-RI

*Maite bat maitatzen det maitagarria
begi ederra du ta guztiz argia
daukat urruti
bañan ezin kendu det burutik
aren itxura
saldu al baliteke pixura urriaren truke
nork erosi faltako ez luke.*

*Ogei ta lau leguaz nago aparte
bitartean badauzkat milloi bat ate
guztiak itxirik
nai arren ezin egon ixilik
beti negarrez
nere maite maitearen galdez
ote dan bizi
biotz biotz nereko Kontxesi.*

*Egunaz argi gutxi gauean illun
kontsuelorik ez da neretzat iñun
maitea gabe
egin ote nadin aren jabe
oroituzean
zenbait pena nere biotzean
ditut igaro
maite det ez da milagro.*

PERU GUREA LONDRESEN

*Peru gurea Londresen
zirin-bedarrak ekarten;
ura andik etorri arte,
gu emen dantza gaitezen.
—Oi, au egial
daigun jira bi, Maria.*

*Kapoiak dagoz erreten,
oilaskotxuak mutiltzen;
orrek ondo erre-artean,
gu emen dantza gaitezen.
—Oi, au egial
daigun jira bi, Maria.*

*Neure oilanda nabarra
txikarra, baina zabala,
zetan oa i azurora
etxean oilarra donala?
—Oi, au egial
daigun jira bi, Maria.*

*Neuk ugazaba nekusan
Izurdiako zubian;
neugaz atzera ekarri neban
sardin-saskitxo barrian.
—Oi, au egial
Orain duk ire aldía.*

*Neure mutiltxo txoria,
ik esan eustan egia:
gaur gabeen dantzauko zala
nire emazte Maria.
—Oi, au egial
iretatzat mando zuria.*

GOIZIAN GOIZIK

*Goizian goizik jeiki ninduzun ezkontu nintzan goizean
Bai eta ere setaz bestitu ekia jeiki zanian
Etxekoandere zabal ninduzun eguerdi erdian
Bai eta ere alargun gazte ekia sartu zanian.*

*Zazpi urtez etxeki dizut gizon hila kanberan
Egunaz lur hotzian eta gaiaz bi besuen artian.
Zitru hurez ukhuzten nizun astian egun batian
Astian egun batian eta ostirale goizian.*